

Ongi etorri, aita

**Miren Azkarate
Badiola**

Ongi etorri, aita! Ezin dut beste modu batera hasi gaurko tarte-txo hau. Eta, nola ez, ongi etorri ere Joseba! Askotan amestu arren ez nuen uste noizbait iritsiko nintzenik lerro hauek idaztera. Oraindik ere amets bat dela iruditzen bazait ere, ez da, lerro hauek idazten ari naiz, erre-alitatea da. Oraindik ere sinesten ez du-dan egunak bizitzen ari naizen honetan gaurkoan, banekien horrela hasi behar nituela lerro hauek, nahiz eta ez jakin oso ongi nola jarraitu.

Emozio handiko egunak izaten ari dira, poza gailentzen den arren, ezin

uka sentimendu kontrajarriak ere badi-tudala; beldurrak, tentsioak, urduri-tasuna, tristura oraindik etxeratzeko falta direnengatik eta haien senideen-gatik...

Zurrunbilo handi batean sartuta da-ramat azken astea, Kubako urakan ba-tek gorputz osoa zeharkatuko banindu bezala sentitzen naiz. Arestian aipatu-tako sentimenduen kudeaketaz gain, egoera berriak eskatzen duen guztia ere kudeatzen ari naiz eta, nola ez, jaso ditudan mezu eta dei andanak ere. Bi-de batez, pertsona horiei guztiei miles-ker bihotzez.

Aitaren itzulera honekin zirkulu bat ixten dela iruditzen zait. Ni jaio nintze-nerako aita Ipar Euskal Herrian iheslari politikoa zen, bi urte nituela torturatu eta espetxeratu egin zuten, eta lau urte ez nituela Kubara joan zen. Gaur, nire haurrak nik garai hartan nuen adin berbera dutela Euskal Herrira itzuli da aitona, kurioa behinik behin. Urte gehiegi senide eta lagunengandik ba-natua. 34 urte deserrian, besoak zaba-lik artatu duen herrian, milesker Kuba.

Hasi bezala amaituko dut gaurkoan, irakurle: ongi etorri, Joseba eta ongi etorri, aita! •

Arnasa

Antton Izagirre

Arnasa da jaioberriaren presen-tziaren lehen aztarna. Arnasa hil denaren azken ekimena. Arnasa galdu egiten dute batzuek, arna-sa kendu egiten zaie besteei. Arnasa gara. Horrek egiten gaitu bizitzaren jabe.

«Ezin dut arnasarik hartu» izan ziren Floyden azken hitzak Chauvin polizia arrazistaren belaunak lepoa estututa ito-tzen zuen bitartean. Erruduna, errudun-tzat jo dugu, jo dute eta zalantzarik gabe onartu dugu, baina biharamunean beste bat hil dute. Koloreak bereizten ditu hil-dakoak eta hiltzaileak. Sustraian dagoena ez da polizia baten jokaera okerra, egitu-razko arazoa da nonbait, polizia barneko

arrazakeria. Polizia gorputzaren baitako joera gizarte zabal baten ispilua den sus-moa ez da zentzugabea.

Egun berean jakin dugu, aldiz, Iñigo Ca-bacasi arnasa kentzeagatik zigorturiko er-tzainak ez duela zigorrik izango. Errudun-tzat jo zutena errugabetu dute. Honetan, kolorea ez zen bereizgarria izango. Arra-zakeriaz ez, baina bereizkeria ideologiko-az eragindako errugabetzea izan den sus-moak zentzua hartzen du. Arnasak ez du nonbait denontzat balio bera.

Egun bertsuan, bi gazte etorkinek ar-nasa galdu dute, arnasa kendu diote be-ren buruari. Ezin izan dute arnasa har-tzen jarraitu, egoerak ito ditu. Inork, ez

du/dugu inor errudun egin. Egon litez-keen errudunak ere errugabetu egin di-tugu. Zerk estutu die eztarria, arnasa be-ren buruari ukatzera iristeraino? Segur aski gogoan izango zituzten beraien an-tzera bidaia egitera derrigortuak izanik itsasoan arnasa galdu zuten herrikideen ametsak.

Oroitu, haientzat guztientzat, itsasoa-ren beste aldetik lehorreratu zaigun Jose-ba Sarrionandiaren olerkia: «Itsaskurkui-lua bainintz/ hartu ninduzun/ belarriraino emeki altzatzeko. Gero man-golinen artean/ utzi ninduzun/ kutuna uzten den bezala. Zure arnasa dantzute geroztik/ nire baitan uhainek». •